

EUSKERA

EUZKADI'N EUZKERAZ

Bosnia'tarrak Euzkadi'ra etorri eta erdera irakatsiko zitzaiera ez genun inola ere uste izango baña alaxe gertatu da. Ordizi, Eskoriatza ta Legazpi'ra etorri zaizkigu ta erdera irakatsiko zaie!

Azterketa egin bearra degu: Bear aña maite al degu Euzkera? Aal degun guzian erabiltzen al degu? Gure Izkuntza lantzen sayatzen al gera? Erbestekoak etorri ta gure izketa entzunda, Euzkadi'n ala España'ko edozein lurraldetan dirala uste izango al dute? Izkuntza galtzen ba'degu Euzkadi galdua dala ez astu. Guziok degu ba erantzukizuna arazo ontan.

Onetzaz gañera, atzerripetuai erdera irakasten be'diegu... Gureak egin du!
Ondoren, Ordizi, Eskoriatze, ta Legazpi'ko Endoreai (Alcalde) bialitako

Agur Jauna:

Bosnia'tik Euzkadi'ra etorri zaizkigun erbesteratuak zuen Erria'n dituzutela jakin degu. Bijoakizue gure zorion-agurra.

Baña gure kezka azaldu nai dizuegu. Izparringian ikusi degunez gaztelera irakasteko asmoa da. Etzaigu au inola ere zuzena iruditzen.

Gaztelera al da gure Izkuntza? Gure Aberrian'n erbesteko izkuntza irakastea ondo iruditzen al zaizu?

Bukatzeko ona emen gure iradokia (sugerencia):
Euzkera irakatsi, bai, baña EUZKERA JATORRA, ez orain, zoritxarrez, nagusitu zaigun "batua" izeneko ori.

ARZELUS'tar AMALE
Lendakaria' k
(ARBASOEN IZKUNTZA)

LAUAXETA

Il-zorian egon
lorerik ederrena
mintzaireen artean;
alde guztietatik
etsaiak orroaka
min gaiztoenean.

Gorrotoa ta irain
itzez eta ezpataz
nai zinduezan austu;
zer zeunkan, euzkera,
zergaitik nai eben, zu,
erre oparitu...?

Egoera larria...i
Gau baltzaren gaupean
ba-dator izarra;
garo usaia dakar
argia ta suz jantzirik,
Urkiagatarra.

Berezko doi ederrez
mindu ziñan erriaz
sorrera garbian;
odola zeunkan lertzen
amaren gal-zorian
kateien azpian.

Oi, zeñen samiña dan
ixildu ezindako
amaren negarra...
gizonak ama il nai...
zuk, ezin etsi...
barneko deadarra.

Ziñaren indar aundiz
dana eskeini zeuntsan
euskaldun lurrari;
azur, mamin, odola,
grñaz maite zenduan
Aberri amari.

Euzkera zan zure itza,
odolaren tantoka
oguzi zenduna;
beroa ta sendoa,
biotzean zendukan
bitxi bikaiñena.

Euskaldun egia
odol biurtu jatzun
izate guztian;
euzkotar gogo zarra
laba goritan zeunkan
urtutzen bizian.

Martirien odola
emon zeuntsan lurrari
kristau argietan;
Euzkadik maite zaitu
eta Aitak onartu
zorion baketan.

Zure Jeldar bideak
argia zabaldu dau
Mungia aldean;
maisuu artzen zaitugu
izkuntza ta jakintzaz
erritar bidean.

PAULIN

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ